

ESKUTITZ BAT.



Donostiatik, 1891-ko Buruillaren 29-an

Azkue-ko Resurreccion Maria Jauna.

Gurgarrizko¹ Abade Jaun, nere adiskide maitagarriya: ez da gaur, nik onako nere biyotza bete beteko zure *Izkinde* berri miragarri au eta zu biyok maita erazi nai ez zindiozketedan Euskaldun biyotzik. Bai, niretzat guztiz gomutagarrizko² egun doatsua, orrenbesteraño lagun egin izan dizun Jaungoiko onari milla ta milla esker, zuk ikasle onen añ argigarriro egin dezun Izkinde-liburu eder galant au niri biraldu eta (orduanche bertan edo egun berean izan ere Apaizok genduen Jaungoikoaren Ama Donzellaren Eleiz-errezoa egiten edo errezatzen nengoan biz-aññ ordu onean eta bere egunetako emaitz edo doain zerutikakorenbat biz-ala) nere biyotzeko *kuñun-kuñun au* zuk niri añ gozoro artu erazi didazun, ill onen ogei ta seiko-larunbata, ¡bai, benetan ere niretzat onen atsegin eta oroigarrizko eguna! Ama Euskera zurekin bere jatorrizko añ argi-jariyo bere semerik maiteenarekin biz-ala añ zorionean besarkatu izan dan eran besarkatzeko, zu noiz Salamanka-ko Jainkokinde-eskolan goiyen goiyendurik *Erakusletu*³ eta Apaizturik ere, zu noiz baño noiz gertatuko zinitzaion begira zai-zai

(1) Gurgarria, venerable.

(2) Gomutagarria, memorable.

(3) Erakusletu, hacerse Doctor.

zegokizula baizik ez dirudi. Gaurtik aurrera alegiya, jeuskal biyotzen kuñungarri onekin! zure izen ta guzti biyotz ta izpañoktatik ere bazarigula bazarigula, illezkortu ere egin bear zatzaigu, bai. *Argiyaren argiya mañtetasun edo amorioaren amorioz baizik birutzen edo irukoiztutzen ezpada*, gañ gañeko zure Izkinde miragarri au ere, Añgeruen buru eta eskuetatik sortua bera balitz ere, buru ta biotz onetan baizik burubioztu ezingo litzake bada. Beraz, gaur bere egun santua deguta Migel Arkanjelu santuak gaurtik aurrera batezere, beti bere egopera eta Euskaldun onen biotzetaratuko ere al digu, bai: eta (Euskal-Erriya biztutzen zaigunerako ill-oe ganean zuk an bertan Ekaudi¹ orretako Ekautu² Jaunai añ polliki dirautsezun eran utzi gabe) miragarrieneko gure izkunuz Jainkozko onen argjariotegi edertzat bizala gure Euskal-Erriko buru eskubidedun guziyak berezkiro, or emen eta nun-nañbiyotz-biyotzetan kuñungarritzerañ eta biotzez biotz Euskal-erri guzi guziyan zabaltzerañoko frutu guri ugari ugariyak eman eraziko al dizkizute eta al dizkigu, bai, arren, bai!

Nire ¡ai! Donosti dontsu onetan Euskerak duen baño ikasle geiago ez izatea ezin geiagorañ mingarri bazait ere, zeñi erakutsi daukadan bitartean, gure Irakastegi onetako argjariotegirik onena paregabeko zure Izkindebikañ au izango zaigu.

Gerošeago badakuskiozedan oker-unecho batzuen berri ere eman naiko nizuke.

Baita nirekin batera onako nere adiskide eta zure ikaslekide, Jesusen Biyotz donetiko Parruki onetakose lagunkide On Zipriano Ormazabal eta On Jesús Maria Echeberria Apaiz-ok ere, zayen bizain atsegin-garrizko zure Izkinde onen *ongi-egña* orañ biyotz-biyotzetik ematen dizute.

Atsegingarri izan ere dakiola azkenik, zuk bere glorigarritzat egin eta ederki eskañtzen ere diozun Jaungoikoari berari. *Sit gloria Domini in saeculum saeculi: laetabitur Dominus in operibus suis*. Psalm. 103.

Jaungoikoaren graziya eta osasuna bere onra eta Euskeraren zorrionerako opa opa dizkizun zure agindupeko adiskide Apaiz

JOSÉ GASPAR OREGI-TARRA.

(1) Ekaudia, diputacion.

(2) Ekautua, diputado.